

KOSTUEN EGITURA



BETA



Hasierako inbertsioa

Gure proiektua **APP** batean oinarrituta dagoenez, honen sormenerako hasierako inbertsio bat egin behar da.

Gure aplikazioa hainbat ezaugarri izango dituenez, hasiera batean **BETA** bertsioan merkaturatuko dugu, oinarrizko ezaugarri batzuekin eta **froga moduan**.

Honen bidez gure proiektuaren **onarpena merkatuan** jakingo dugu, baita erabiltzaileek dituzten iradokizunak honen inguruan.

Aplikazioaren sormena \approx **100€**

Domeinua erostea, datuak gordetzeko zerbitzaria erostea eta bestelako gastuak software-a sortzeko.

Elkartearen eraketa \approx **100€**

Merkataritza-erregistroan inskripzioa eta notaritza gastuak.

GUZTIZKOA

\approx **200€**

Erabilitako dirua gure aurrezkietatik aterako da.

* Bat-bateko gastuak ere egon daitezke.



Kostu Finkoak

1. APP-aren mantenimendua hileroko ordaindu behar da, aplikazioan aldaketak, berrikuntzak eta konponketak egiteko.
2. Gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoa izango den lan-taldea finantziatzeko kostuak.
3. APP-a erabili ahal izateko, domeinua hileroko ordaindu behar da.

Ez ditugu gastu finko gehiagorik izango momentuz, ekipo informatikoa eta APP-aren kudeaketa gure esku egongo direlako.



Kostu Aldakorrak

1. APP-an sortutako datuak hodeian gordetzeko kostuak hauen kantitatearen arabera izango dira.
2. Gure enpresa sustatzeko sortutako publizitate-kanpainak ere kontuan ditugu, online zerbitzu bat baita.

Beste kostu aldakorrik ez dago gure enpresa ekoizpen fisikorik ez duelako, baizik eta zerbitzu bat eskaintzen duelako.

